

# **AGIAN NIRE SEME-ALABEK**

## **JAZARPEN KASU BAT IKUSI DUTE.**

### **Adierazleak**

Garrantzitsua da kontua hartzea aita eta ama guztiok gure semearen edo alabaren inguruan dauden haur guztien aita eta ama garela. Nahi dugu gure semea edo alaba harreman giro positibo batean egotea, gizalegez hazten lagunduko diona bai berari, bai bere ikaskideei. Garrantzitsua da guztion artean indarkeria alde batera uzten joatea gatazkak konpontzeko bide gisa. Batzuetan seme-alabei entzuten dizkiegun zenbait gauzek pentsarazten digute zer edo zer gertatzen ari dela. Gure seme-alabek indarkeriazko gertaera bidegabeak ikusi eta horren kontrako ezer egiten ez dutenean ez dira gizalegea garatzen ari, hala nola bidegabekeriari aurre egitea, besteen sufrimenduarekiko sentibera izatea, enpatia... Jazarpen kasuen aurrean beti esku hartu behar dugu, jakinda gainera, arazo horiek ez direla berez joaten. Zenbat ikastetxek jazarpen kasuak konpondu dituzte pertsona heldu batek jakinarazi ondoren, eta pertsona horrek ez zuen zerikusirik batere ez biktimekin ez erasotzaileekin. Gogora dezagun guztiok behartuta gaudela adingabeak babestera.

### **Hona hemen adierazle batzuk:**

- Gure seme-alabek ondokoa bezalako zerbaite esatea ikaskide batez: "merezia du"
- Ikaskide bat zirikatzea.
- Guztiek norbait bakarrik uztea (berak bilatu duela esan arren).
- Haur bat komunean sartu eta atera nahi ez izatea.
- Elkar joka ibiltzen diren hurrez mintzatzea.
- Ikaskideren bati buruz gaizki esaka aritzea.
- Ikaskideren bat izendatzeko gaitzizen bat erabiltzea.
- Norbaiti hesiarena, garbigailuarena, korridorearena eta abar egin diotela kontatzea. "Lasaigarriak", "muturrekoak", "zaplastakoak", "zartakoak" ematen dizkiotela esatea. Batzuetan "legala" edo "legalak" adjektiboak erabiltzen dituzte.
- Ikusten dugu gure seme-alabek edo bere lagunak norbaiti trufa egiten diotela eta pertsona hori beti berbera dela.
- Kontatzen digute mutiko batek beti negar egiten duela eta beti bakarrik egoten dela.
- Esaten digute zenbait mutilek beste batzuk jotzen dituztela.
- Esaten digu "guztiak egiten dutela" eta horrek esan nahi du ikaskideren bat bakarrik uzten ari direla.
- Batzuetan gurasook gure artean mintzatu gara eta arazoa antzeman dugu.